**KULTURA SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, irekia, «Sarea» izeneko antzerki sarearen informazio sistema garatzeko beharrezko lanak gauzatuko dituen enpresa baten zerbitzuak kontratatzeko dena (K-44/2006). 18854

**INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA**

IRAGARKIA, Alegría-Dulantziko (Araba) herri barruan Alegria ibaiaren ibilgua eta ibaiertzak lehengoratzeko proiektuaren obretarako administrazio-kontratua esleitu dela argitara ematen duena (002/2006 espedientea). 18856

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

CONCURSO PÚBLICO por procedimiento abierto, para la contratación de los servicios de una empresa que realice el desarrollo del sistema de información de la red de teatros, Sarea (Expediente K-44/2006). 18854

**DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato administrativo de obras que tiene por objeto «proyecto de restauración del cauce y riberas del río Alegría a su paso por el casco urbano de Alegria-Dulantzi (Álava)» (Expediente n.º 002/2006/). 18856

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 4771

170/2006 DEKRETUA, irailaren 12koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuen Dekretua aldatzen duena.

2004ko urriaren 27ko EHAAn (206. zk.) urriaren 13ko 1990/2004 Dekretua argitaratu zen, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuena.

Dekretu hori (190/2004, urriaren 13koa) inpugnatu egin zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak honako epaiak eman zituen: 516/2005 epaia, uztailaren 8koa, 2021/04 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona; eta 879/2005 epaia, abenduaren 19koa, 1947/04 administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona.

Epai horiek behin irmo eginda, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren bi ediktu argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: bata, 2005eko azaroaren 28an, eta bestea, 2006ko maiatzaren 8an. Ediktu horiek, aipatutako epaietan hartutako erabakien berri ematen dute, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 107.2 artikulua beteaz, eta Lege horren 72.2 artikuluan aurreikusitako ondorioekin. Honela diote hitzez hitz ediktu horiek:

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 4771

DECRETO 170/2006, de 12 de septiembre, de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

En el BOPV número 206, de 27 de octubre de 2004, se publicó el Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

Habiendo sido impugnado el citado Decreto 190/2004, de 13 de octubre, la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dictado sentencias n.º 516/2005 y 879/2005, de fechas 8 de julio de 2005 y 19 de diciembre de 2005, respectivamente, correspondientes a los recursos contencioso-administrativos n.º 2021/04 y 1947/04.

Habiendo alcanzado el carácter de firme dichas sentencias, se publican en el Boletín Oficial del País Vasco, de fecha 28 de noviembre de 2005 y 8 de mayo de 2006, sendos edictos del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que recogen, respectivamente, lo acordado en el fallo de las citadas sentencias, en cumplimiento del artículo 107.2, de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa y con los efectos previstos en el artículo 72.2 de la misma, en los siguientes términos:

1.– «Baliogabe deklaratzen dira honako hauek:

A) Urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 15.B) artikuluaren ondoko zatia: «edo bestela egiteko hori bere iritziz egokia denari ematea, horretarako dagozkion akordioak hartu behar dituelarik».

B) 190/2004 Dekretuaren 16.2 artikulua; izan ere, Balioespen Batzordean langileek izango duten ordezkaria izendatzeko sistemak ez du bere baitan hartzen ordezkaritza sindikalik, eta aukera horri isilean uko egiten zaio.

190/2004 Dekretuaren 55. artikulua. Artikulu horren arabera, bitarteko funtzionarioak izenda daitezke ordaindutako zereginetan aldi baterako jarduteko, beti ere, aurrekontuko zuzkidurarik badago. Artikulu horretan ez dira aipatzen, ordea, plantillan hutsik dauden lanpostuak (EAEko administrazio orokorraren eremuan), ez eta hutsik dauden lanpostuak eta behin-behineko programak ere, foru- eta toki-administrazioaren eremuan».

2.– «Baliogabe deklaratzen da errekurritutako Dekretuaren 58.3 artikulua».

Epaiak behar bezala betetzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluak, zati batean baliogabetua izan den Dekretua onartu duen organoa den aldetik, berriro idatzi behar ditu euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 16.2 eta 55. artikuluak.

Ondorioz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko irailaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehen artikulua.***– Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 16. artikuluaren 2. paragrafoa aldatzen da; honela geratuko da idatzita:

> «2.– Langileen ordezkariek kide bakarra izango dute balioespen batzordean. Kide hori -titularra eta ordezkoa— izendatzeko proposamena ordezkaritza horrek dagokion Negoziazio Mahaian dituen kideek hartutako erabakiaren bidez egingo da.
>
> Titular eta ordezko izateko hautagai bat baino gehiago badago, langileen ordezkaritzak Mahaian dituen kideen artean botorik gehiena lortzen duena izendatuko da.

1.– «Declarar la nulidad de:

A) El artículo 15.B) del D 190/2004, de 13 de octubre, en el inciso «o encomendar esta tarea a quien considere oportuno, a cuyo efecto adoptará los acuerdos pertinentes».

B) El artículo 16.2 del D 190/2004, en cuanto no desarrolla el sistema de designación del representante del personal en la comisión de valoración por la representación sindical, y establece una renuncia tácita.

El artículo 55 del D 190/2004 en cuanto posibilita el nombramiento de funcionarios interinos para el desarrollo transitorio de funciones retribuidas, siempre que exista dotación presupuestaria, sin referencia a plazas vacantes de plantilla (en el ámbito de la administración general de la CAPV) y a éstas y a programas temporales, en la administración foral y local».

2.– «Declarar la nulidad del artículo 58.3 del Decreto recurrido».

La adecuada ejecución de las sentencias conlleva, no obstante, que el Consejo de Gobierno, órgano aprobatorio del Decreto parcialmente anulado, proceda a dar nueva redacción a los artículos 16.2 y 55 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas.

En su virtud, oída la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 12 de septiembre de 2006,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el párrafo 2 del artículo 16 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, que queda redactado como sigue:

> «2.– La representación del personal contará con un único miembro en la comisión de valoración. La propuesta de nombramiento, tanto del miembro titular como del suplente, se efectuará por acuerdo de los integrantes de dicha representación en la Mesa de Negociación correspondiente.
>
> Caso de existir más de un candidato para cada uno de los puestos de titular y suplente será designado aquél que cuente con mayor número de votos entre los integrantes de la representación del personal en la Mesa.»

***Bigarren artikulua.–*** Euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartu zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 55. artikulua aldatzen da; honela geratuko da:

«55. artikulua.– Bitarteko funtzionarioen izendapena.

Presa edo beharra dela-eta, bitarteko funtzionarioak izendatu ahal izango dira plantillan hutsik dauden lanpostuak aldi batean betetzeko —harik eta karrerako funtzionarioek betetzen dituzten arte—, edo lanpostu horiek aldi baterako hutsik gelditzen direnean, haiek ordezkatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko irailaren 12an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

***Artículo segundo.–*** Se modifica el artículo 55 del Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, que queda redactado como sigue:

«Artículo 55.– Nombramiento de personal funcionario interino.

Por razones de urgencia o necesidad, se podrá recurrir al nombramiento de personal funcionario interino para ocupar transitoriamente plazas vacantes de plantilla en tanto no sean provistas por funcionarios de carrera, o para que les sustituyan en el desempeño de sus puestos de trabajo en los casos de ausencia temporal.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 12 de septiembre de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

## GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIA

## 4772

5/2006 FORU ARAUA, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde antolaketa, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 foru araua aldatzen duena.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «Uztailaren 5eko 5/2006 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Araua aldatzen duena», eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia-San Sebastián, a 5 de julio de 2006.

Diputatu nagusia,
JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA.

## JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

## 4772

NORMA FORAL 5/2006 de 5 de julio, de Modificación de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 5/2006 de 5 de julio, de modificación de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa» a los efectos de que todos los ciudadanos, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación la guarden y hagan guardarla.

Donostia-San Sebastián, a 5 de julio de 2006.

El Diputado General,
JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA.